# “Komisario berriak” erakusketa aurkeztu du Montehermoso kulturuneak, Artiumekin batera

**Urtarrilaren 20tik otsailaren 28ra arte ikusi ahal izango da “…tokiren batean finkatzeko behin-behineko modua behintzat” erakusketa, DSS2016EUren proiektu baten emaitza.**

Donostia 2016 Fundazioaren “Komisario Berriak” programaren emaitza da “…tokiren batean finkatzeko behin-behineko modua behintzat” erakusketa, eta Montehermoso kulturunearekin, Artium Museoarekin, Azkuna Zentroarekin eta Tabakalerarekin elkarlanean egin da, komisario berrien prestakuntza babestea helburu.

Gaur aurkeztu dute, prentsaurrekoan, Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok, Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatu Igone Martínez de Lunak, Artiumeko zuzendari Dani Castillejok, DSS2016EUeko Pablo Berásteguik eta Komisario Berriak fundazioko Aimar Arriola eta Irati Irulegik.

Bilboko Azkuna Zentroan izan ondoren, Montehermoso kulturunean eskainiko da orain erakusketa, Artium Museoarekin elkarlanean, obra eta jarduera berriekin. Lorategiaren, behin-behineko harreman ugariren bilgune horren metafora da erakusketa, eta bertako nahiz atzerriko 14 artistaren obra bana erakutsiko du: bideoak, eskulturak, instalazioak, marrazkiak eta liburuak.

Udaleko kultur arduradunaren arabera, *DSS2016EUk asmatu du, inondik ere, beste euskal hiriburuak aintzat hartu dituelarik, euskal kultura eraikitzerakoan bakoitzak eskain dezakeena erakusten baita hartara; lokaletik globaltasunean sortuko duen kultura egiterakoan; tradiziozkoa eta garaikidea, kosmopolita eta historikoa nahasiko dituen kultura, eta gure-gurea dena kanpo-proiekzioarekin, hemen proiektatu nahi duen kanpokoarekin.*

**Komisario Berriak**

Parte hartzen duten hamar komisario berriak joan den urte hasieran egin zen deialdi ireki batean hautatu ziren, Europako hainbat lekutatik aurkeztu ziren 70etik gora hautagaien artetik.

Hiru hiriburuetan egin diren laborategietan parte hartu dute guztiek, eta modu kolektiboan lan egiteko metodologiekin esperimentatu dute, komisarioaren eta itzultzailearen funtzioen arteko ohiko asoziazioa gainditzeko asmoz.

Urtarrilaren 20tik otsailaren 28ra bitartean ikusi ahal izango da erakusketa, Montehermoso kulturunean.

# Montehermoso presenta la exposición de "Komisario berriak" de la mano de Artium

**La muestra "*…al menos un modo provisional de asentarse en un lugar*" se podrá visitar del 20 de enero al 28 de febrero y es fruto de un proyecto de DSS2016EU.**

La exposición "*…al menos un modo provisional de asentarse en un lugar*" es el resultado del programa "*Komisario Berriak*", iniciativa de la Fundación San Sebastián 2016, y llevada a cabo en colaboración por el Centro Cultural Montehermoso, Artium, Azkuna Zentroa (Bilbao) y Tabacalera (San Sebastián) para apoyar la formación de nuevos comisarios.

La han presentado en rueda de prensa hoy la concejala de Cultura, Educación y Deporte del Ayuntamiento, Estíbaliz Canto, Igone Martínez de Luna, Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte, Dani Castillejo de Artium, Pablo Berástegui de DSS2016EU y Aimar Arriola e Iratí Irulegi de Komisario Berriak.

Tras su paso por Azkuna Zentroa de Bilbao, la segunda parte de la exposición recala en el centro Montehermoso de Vitoria-Gasteiz de la mano de Artium, con nuevas obras y actividades. La exposición se sirve de la metáfora del jardín como un lugar de relaciones provisionales y múltiples y presenta 14 obras de otros tantos artistas locales e internacionales, entre las que se incluyen videos, esculturas, instalaciones, dibujos y libros.

Según la responsable de Cultura del Ayuntamiento, "uno de los aciertos de *DSS2016EU ha sido contar con el resto de capitales vascas, ya que es una muestra del valor que tenemos cada una, a la hora de contribuir a la construcción de eso llamado cultura vasca, una cultura que desde lo local crea en global, una cultura que mezcla lo tradicional y lo contemporáneo, lo cosmopolita y lo histórico, lo muy nuestro con proyección externa, con lo de fuera que quiere proyectarse aquí*"

**Komisario Berriak**

El grupo de diez nuevas y nuevos comisarios participantes fue seleccionado en una convocatoria abierta a principios de año, entre más de 70 candidaturas de diferentes lugares de Europa.

Todos ellos, han participado en los laboratorios realizado sen las tres capitales vascas y han experimentado con metodologías para trabajar de manera colectiva con la intención de superar la habitual asociación entre la función del comisario con la de traductor.

La muestra se podrá visitar del 20 de enero al 28 de febrero en el Centro Cultural Montehermoso